

# Dock Of The Bay<sup>®</sup>

## 2024ko Oinarriak

**Musika-Dokumentalen**

**Donostiako**

**17. Zinema-Jaialdia**

**Zabalik dago filmak aurkezteko epea**

# 2024ko Oinarriak

## Film Luzeen Sail Ofiziala

Dock of the Bay jaialdia fikziozkoak ez diren eta musikaren mundu zabala –haren gai eta forma ezberdinetan– oinarritzat duten filmen zabalkundean dago zentratuta.

Donostian egingo da Dock of the Bay Jaialdia, 2024ko ekainaren 3tik 8ra.

## Eskakizunak-Film Dokumental Luzeen Lehiaketarako Atala

- Fikziozkoak ez diren filmak, musikaren arloa gaitzat dutenak, arlo horren edozein alderditan, eta narratiba konbentzionalen mugekin esperimentatzen duten filmak, baldin eta musika bada diskurtsoaren muina.
- Gutxienez 60 minutuko iraupena izan beharko dute filmek.
- Jaialdiko antolatzaileek iraupen luzeagoko lanak onartzeko eskubidea izango du, haien interesekoak baldin badira.
- Jatorrizko hizkuntza gaztelania ez duten film guztiak azpitoluekin aurkeztu beharko dira, ingelesez eta gaztelaniaz. Azalpena: jatorrizko bertsioa gaztelaniaz duten filmek ez dute azpitolurik beharko.
- Filmak ekoizleek, zuzendariak edo lanen legezko ordezkariak inskribatu beharko dituzte.
- 2023ko maiatzatik aurrera egindako filmek bakarrik har dezakete parte Zinemaldian.
- Atal ofizialean hautatuko filmak Gipuzkoan estreinatu behar dira, Dock of the Bay Jaialdian; gainera, ezin izango dira izan lehenago areto komertzialetan, plataforma digitaletan edo VODen estreinatutakoak.
- Proiektatzeko, DCP formatuko proiektzio-kopiak soilik onartuko dira.
- Ezinbestekoa da DCPak laborategi profesionalak egindakoak izan daitezen. Bidalitako materialek formatu hori ez badute, filmen arduradunek ordaindu beharko dituzte DCP bihurtzeko gastuak.
- DCP bat esteka digital baten bitartez bidaliz gero, Jaialdiak bidalketa hori egiteko plataforma bat jarriko du.
- DCPak formatu fisikoa baldin badu, filmaren kontura izango dira bidalketa-gastuak eta hura itzultzearenak.

- Filmak onartzeko epemuga: 2024ko otsailak 15a.
- Hautapen-batzordea arduratuko da 2024ko Atal Ofiziala osatuko duten filmak aukeratzeaz, eta antolatzaileek izendatutako kideek osatuko dute.
- Film bat inskribatzeak esan nahi du araudi honetan jasotzen diren baldintzak onartzen direla.

## Inskribatzea eta Parte Hartzea

- [Festhome](#) online plataformaren bitartez egin ahal izango da lanen inskripzioa edo [Film Freeway](#)-en.
- Izena emateko, beharrezkoa da honako material hauek aurkeztea:
  - Sinopsi laburra ( 200 karaktere)
  - Sinopsi luzea (400 karaktere)
  - Fitxa tekniko-artistikoa
  - Zuzendariaren biofilmografia
  - Zuzendariaren argazkia
  - Filmaren hiru fotograma
  - Trailerra

Hori guztia behar bezala beteta egon beharko da izena ematerakoan.

- Online inskripzioko inprimakitik hartuko dira prentsa-buletinetarako, katalogorako eta Jaialdiaren webgune ofizialetarako beharrezko dokumentazio-materialak (sinopsia, fitxa tekniko-artistikoa, biolmograak, zuzendarien eta filmaren argazkiak); horrela, bada, inprimakia behar bezala bete beharko da inskripzioa egiterakoan.
- Filmaren ekoizleek edo ordezkariak unean-unean bidali beharko dute Jaialdiaren sailek eskatzen dizkieten hautatutako filmei buruzko promoziorako material oro.
- Apirilaren 15etik aurrera jakinaraziko da zein izan diren hautatutako filmak.
- Jaialdiaren Zuzendaritzak erabakiko du lan bakoitza noiz eta zein ordenatan erakutsiko duten.
- Behin film bat jaialdian parte hartzeko onartzen denean, eta erakusteko baimena onartzen denetik aurrera, ezin izango da parte-hartzea atzera bota, eta hornitzaileak jaialdiari filma ahalik eta ondoen proiektatzeko material guztiak emateko obligazioa izaten jarraituko du.

## Harremanetarako

Inskripzioarekin lotutako edozein zalantza argitzeko, helbide elektronikoa honetara idatz daiteke:  
[info@dockofthebay.es](mailto:info@dockofthebay.es)

## Epaimahaia

Jaialdiaren zuzendaritzak izendatuko du epaimahaia, eta zinemaren, musikaren eta kulturaren munduko profesionalak osatuko dute.

Epaimahaiak izango du sariak esleitzeko erabakia. Bakoitia izango da beti epaimahaikide kopurua. Jaialdiaren zuzendaritzak izendatuko du idazkaria, eta boto-eskubiderik gabe hartuko du parte deliberazioetan.

## Sariak

- Nazioarteko Dock of the Bay Film Luze Onenaren saria, 2.000 eurokoa (zergak barne).
- Gainerako sariak zehazteke daude.
- Filma lehiaketan inskribatzen duen pertsonari emango zaio saria banku-transferentzia bidez, jaialdia amaitu eta laster.

## Aipamenak eta Sariak

- Saritutako filmek sari hau publizitate, prentsa-material eta kopia guztietan aipatzeko eta, hala dagokionean, jaialdiaren logotipoa erabiltzeko konpromisoa hartzen dute.
- Jaialdiaren webgune ofizialean egongo da eskuragai logotipo hori.

